

**Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari****TXOMIN LETAMENDIREN AITORTZA EKITALDIA  
ACTO DE RECONOCIMIENTO A TXOMIN LETAMENDI**

2025-12-22 Bilbo/Bilbao 22-12-2025

Sailburua, alkatea, Herri-agintari eta ordezkariok, Txomin Letamendiren senitartekoak, jaun-andreok, arratsalde on!

Ohorea da niretzat Lehendakari bezala hemen izatea, baina onartzen dut ere ardura handia sentitzen dudala.

Batetik, hunkituta nagoelako, guztiok bezala. Eta bestetik, ez delako erraza minutu gutxi batzuetan hain itzal luzea eta arrasto sakona utzitako pertsona irudikatzea.

Saiatuko naiz.

Aurten, Lauaxetaren jaiotzaren 120. urteurrena ospatzen ari gara.

Aurten ere, omenaldia egin diogu Alfredo Espinosari, lehen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburuari.

Gaur, Txomin Letamendi gogoratzen dugu, bere heriotzaren 75. urteurrenean.

Eta 'Aitzol dogu eredutzat' pieza entzun berri dugu, idazle handiaren miresmenez Txominek konposatutakoa.

Lauaxeta, Espinosa, Letamendi, Aitzol. Lau eredu. Gure Herriko lau figura eredugarri.

Zintotasuna. Gizatasuna. Eskuzabaltasuna. Kemena. Sormena. Kultura.

Maite zuten askatasunari bizia eman zioten.

Pertsonaren duintasuna, demokrazia eta justizia beste guztiaren gainetik babestu zuten.

Eta aurre egin zieten balio horiek ukatzen zituzten totalitarismoei.



Konpromiso hori modu askotara erakutsi zuen Txominek: Euzko Gudarostean, Eresoinkan, edo Euskal Informazio Zerbitzuan, Agirre Lehendakariaren zerbitzura.

“Informazioa da bere lurraldea galdu duen Herri baten armarik inportanteena. Guk ez genuen Estatuaren pareko zerbitzu sekreturik; bai ordea gizon eta emakume leial eta diskretuak”, esan zuen Agirre Lehendakariak.

Haietako bat izan zen Txomin. Muga zeharkatzen lagundu zien hainbati, Joseba Elozegi lagun handiarekin batera.

Aurretik, Estatu Batuekin lankidetzan, frankisten eta nazien aurkako operazio sekretuetan parte hartu zuen.

Garaiko CIAren txosten batek, ‘Mission of Illarramendi’ izenburua zuenak, hauxe zioen: “Inork ez daki ezer Txomin Letamendiren inguruan, eta inork ez du ezer jakingo”.

Zorionez, ez da halakorik gertatu. Bere oroitzapena bizi-bizirik iritsi da guregana, pinturaren, literaturaren eta, aurtan, zinearen bidez, *Karme*le filmean esan bezala. Gaur, beste bultzada bat ematen diogu.

No lejos de aquí, en el Museo de Bellas Artes, se ve a Txomin tocando la trompeta en una pintura de Antonio Gezala, que reproduce el ambiente nocturno y despreocupado de los años 20.

Resulta inevitable preguntarse cómo habría sido la vida de aquel músico prometedor, si la Guerra y la dictadura no se hubieran cruzado en su camino.

Y resulta inevitable pensar cómo sería hoy Euskadi sin el desastre, las pérdidas y el retraso que éstas conllevaron.

No sabemos la respuesta. Pero sí sabemos cómo respondió Txomin y su generación ante la adversidad.

Y sabemos que lo que hoy tenemos: paz, democracia, derechos humanos, autogobierno y bienestar, se lo debemos a su sacrificio y al tesón de quienes tomaron su testigo.

En 1942, Txomin respondió a la llamada del Lehendakari Agirre y cruzó el océano para volver a su País y meterse en la boca del lobo. ¿Somos, o no somos?

Lo hizo en un buque de Sota, de nombre especialmente significativo: 'Buena esperanza'.

Tenía una niña de tres años y otro de dos, y era muy consciente del riesgo que corría.

Fue detenido, encarcelado y torturado, pero, una vez liberado, volvió a implicarse en otra misión, habiendo nacido ya su tercer hijo.

¿Qué lleva a un padre que ama a su familia a dar semejante paso, por encima de su propio instinto de supervivencia y conservación?

Sin duda, una fuerza muy poderosa. Desde la humildad, me atrevo a decir que el amor por la libertad.

Aquella que, aparcando los intereses individuales, apela a la responsabilidad y el compromiso con los demás y con los valores más elevados.

Como vascos:

Su legado nos enorgullece.

Su ejemplo nos inspira.

Su firmeza nos conmueve.

Y su memoria, nos interpela.

Falleció el 20 de diciembre de 1950, hace 75 años. Había sido detenido tres años antes, sometido a un Consejo de Guerra, y juzgado sin ninguna garantía.



Pasó por distintas cárceles y fue brutalmente torturado. No recibió atención médica alguna.

Es nuestra responsabilidad recordar el sufrimiento y la injusticia que padeció, y condenar con toda rotundidad la crueldad con la que fue tratado.

Su voz resuena con más fuerza que nunca en un mundo de líderes autoritarios, totalitaristas, insensibles al dolor de las personas y los pueblos, que ven en el poder una mera extensión de su ego.

Un mundo en el que las guerras y la 'ley del más fuerte' vuelven a abrirse paso, en detrimento de las grandes conquistas de la segunda mitad del siglo XX.

Gure ardura da, beraz, demokraziaren eta bakearen alde dena emateagatik kartzela, tratatu txarrak, erbestea edo heriotza pairatu zuten pertsona guztien memoria lantzea. Guztiena.

Gure ardura da biktimak erdigunean jartzea, eta egiaren, justiziaren eta erreparazioaren bidean sakontzea. Haiei, eta haien gertukoei zor dizuegu.

Eta guztion ardura da Txomin Letamendiren izena eta izana aitortzea, eta demokrazia defendatzea eta sendotzea egunero, minutuero, bizi dituen arrisku eta mehatxuen aurrean. Eta asko dira, egunerokoa.

Bere oroimena lau haizeetara zabaldu, eta betiko gordeko dugu.

Euskadik bihotzean eramango du Txomin, Txominek Euskadi bihotzean eraman zuen bezala.

Amaren eta aitaren etxea defenditzen jarraituko dugu, egun handira arte.

Txomin Letamendi beti gogoan, mila esker guztioi!